

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Meatzaldea

Ahaztutako mineralen bila

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Geografia eta Historia, Natur Zientziak

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Balio Zibikoak

Adi, adi! Leherketa meategian! Iraganeko mezu batek dioenez, istripu horren ondorioz, meatzariak burdinazko mineralen izena ahaztu dute. Hainbat arrastori jarraitu beharko diegu eta hainbat enigma konpondu beharko ditugu mineral horiek aurkitzeko eta meatze-jardueraren ondorioei buruz hausnartzeko. Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa ere bisitatu ahal izango duzu, meategietan erabiltzen ziren tresna eta makina originalak ezagutzeko. Gure esku dago historiaren ibilbidea aldatzea. Ausartzen zara?